

### 3. MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure ustez, haur hezkuntzak eskaintzen duen curriculumak, garrantzia ematen dio haurraren garapen fisiko eta intelektualari, eta gaitasunen arabera ebaluatzen du, etorkizunean irteera profil batekin atera beharko baitute irakasleek.

Hori dela eta, ez da osasun mentalerako behar den espazioa sortzen eta horregatik, guk espazio hori eskaini nahi dugu, psikologian espezializatutako jendearen laguntzarekin, 0-6 urteko haur guztiei garrantzi handia emanez.



Beraz, gure xede publikoa da 0-6 urteko haurrak dira, gure espazioan dauden haur guztiak pentsaera irekiarekin eta adierazpen librearekin ateratzea ahalbidetuko ditugu; horregatik, garrantzitsua da KULTUR-ETXEA Durangoko kaleetan agertzea.

Aztergai dugun faseari dagokionez, datu zehatzak adieraztea gustatuko litzaiguke. Horregatik, irudi batzuk sartu ditugu, Durangoko haurren biztanleriari buruzko informazioa ematen dutenak.

	2021
Durango	
0 - 19	
Guztira	19,68
20 - 64	
Guztira	61,22

Irudiak ikusi eta gero, hurrengoa ondorioztatu dezakegu: Durangon aurkitutako biztanleen %19,58 direla, beraz, 5.868 gazte aurkitzen ditugu herrian. Honek gutxi gora-behera esan nahi du, urtean 200 haur jaiotzen direla batez beste eta honek esan nahi du portzentai horren %8,49 0-6 faseko haurrak direla. Datu hauek, dokumentu honetan erantsi ditugun grafikoetan ikusi daiteke.

Horregatik, KULTUR-ETXEA proiektua aukera bat dela uste dugu, haurrak komunikatu ahal izateko. Izan ere, azken aldirian, komunikazio falta sumatzen dugulako eta egoera hauek ezagutza



faltagatik gertatzen dira, honi esker, hainbat kulturari buruzko informazioa ezagutzeko aukera emango da eta, hurrek kultura ezberdinen bizipenak bizi ahalko dituzte non ikaskideekiko enpatia izatera eramango die.

Hortaz gain, kultura-aniztasuna bultzatzen duten familiengana ere zuzenduko gara. Azpimarratu dugun bezala, gure helburu nagusia munduan aurkitzen diren kultura desberdinen ezagutzak izatea baita.

Honek zer esan nahi du, aurkitzen diren estereotipoak ere alde batera utzi ahal izango ditugula, lehen pertsonan bizi izan diren istorioak kontatuz.

Laburbilduz, esatea gustatuko litzaiguke espazio hori herrian aurkitzen dugun aniztasunerako eskainiko litzatekeela, aniztasun kultural, adin, etnia eta abarrak errespetatuz. Honi esker, espazio segurua sortuko da eta lotura afektibo familiarra lantzeko momentuak eskeiniko ditugu, biztanleriaren aniztasunaren bermatzeko helburuarekin.